


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HISTORIAURREA 10:

GIPUZKOAKO GOI PALEOLITOKO HEZURREZKO

TRESNERIAREN GERTURATZEA: AZAGAIAK.



EGILEA: ASIER EROSTARBE TOME.
HISTORIAKO GRADUA – 4. MAILA.
2016/2017 IKASTURTEA.

TUTOREA: ALVARO ARRIZABALAGA.
GEOGRAFIA, HISTORIAURREA ETA ARKEOLOGIA SAILA.

LABURPENA

Lan honetako helburuen artean, Gipuzkoako Goi Paleolitoko aztarnategietako azagaien berrikuspena eskaintzea da. Era berean, pieza objektu honen katalogatzea eta bere sailkapen tekno-kronologikoa aurrera eraman da. Ikerketa guzti honen abiapuntua, eta lan honen lehen atalean biltzen direnak, berrikuspen bibliografikoan oinarritu da. Atal honetan ere, lanaren muga kronologiko zein geografikoak finkatzen dira. Behin ikerkuntzaren metodologia azalduz, lanaren bigarren atalean jasorik, lorturiko emaitzak zehaztu dira: alde batetik, aztarnategika berreskuratutako materialak ditugu bakoitzaren kokapen eta estratigrafiaren azalpenarekin osaturik eta beste alde batetik, ikertutako material multzoen sailkapen tipologikoa dugu. Jarraian, eta era diakroniko batean, azagaiak Goi Paleolitoan zehar izandako eboluzioa aurkeztu dugu, horietako aldi bakoitzak ezaugarrituko dituen pieza esanguratsuenak aztertuz ikuspegi berri eta orokor bat eskainiz. Azkenik, lanaren azken atalean balorazioa eta lorturiko ondorioak adieraziko dira.

Goi Paleolitoan zehar, giza talde ehiztari biltzaileen ehizarako tresnen sorta nabarmenki zabalduko da, berrikuntza tekniko eta garai hartara arte ez ohikoak ziren materialen ustiapenarekin. Horien artean garrantzitsuenetariko bat azagaia izango dugu zeinak nagusiki adarrean baina baita hezurra eginiko lantza edo azkon muturra dugun, ebakidura eta leunketaz sortua, zurezko haga batean muntatzen zena harrapakinari jaurtitzeko. Hauek, historiaurrean zehar forma eta tipologia ezberdinak aurkezten dute (ebakidura desberdinak, morfometria anitzak, dekorazioak, hagarekin lotzeko oinarriko alakaren forma, etab), eta ondorioz, oso informazio iturri aberatsak ditugu aztarnategietan zein kronologietan gauden jakiteko.

AURKIBIDEA.

1.- SARRERA	7
1.1. TESTUINGURU GEOGRAFIKOA.....	7
1.2. TESTUINGURU KRONOLOGIKOA.....	8
2.- METODOLOGIA	9
3.- EMAITZAK	10
4.- EZTABAIDA	16
4.1. CHATELPERRON ALDIA.....	16
4.2. AURIGNAC ALDIA.....	17
4.3. GRAVETTE ALDIA.....	20
4.4. SOLUTRE ALDIA.....	25
4.5. MAGDALEN ALDIA.....	27
5.- ONDORIOAK	35
6.- ESKERTZAK	36
7.- BIBLIOGRAFIA	37
ERANSKINAK	45

1.- SARRERA


Goi Paleolitoko hezurrezko tresneriaren garrantzia oso handia da, ikerketa tradizional zabalek aditzera eman diguten bezala (BARANDIARÁN, 1967; MUJIK, 1983, 1992). Goi Paleolitoan espezifikoak diren lanen barruan, I. Barandiaranen tesia (1964), hezurrezko tresneriaren sistematizazio tipologikoa (1967) eta Kantauriar Paleolitoko arte ibilkorra (1973) ikerketek nabarmentzen dute, haien argitalpenetik behartutako erreferentziak bilakatu direnak. Lan honen ostean, P. Utrillaren bereziki Kantauri isurialdeko Magdalen hasierarako, zein Behe eta Erdi Magdalen aldirako ekarpena (1976), Kantauriar eskualdeko Goi eta Amaierako Magdalen aldiko aldakortasun arkeologikoan eragiten duten faktoreen hierarkizazio ikerketa C. Gonzalez Sainzen eskutik (1986) eta M^a. S. Corchonen azagaia urkilatudunen (1983) eta Kantauriar arte ibilkorreko testuingurua eta barne azterketa (1986) bezalako beste batzuek jarraitu dute. Horietaz gain, aipamen berezia merezi dute J. A. Mujikak Gipuzkoako hezur tresneriaren erreferentziatzko katalogoa (1983, 1993) eta modu jarraituan Labeko Koba (2000) eta Praileaitz I (2017) tresneriaren azterketa lanak eta A. Baldeon zeinak Ekain (1984), Erralla (1985) eta Amalda (1990) aztarnategietako hezurrezko tresnerien multzoen analisisa gauzatu dituen. Ekarpen guzti hauek eta azken urteotan aurkitu diren aztarnategi berrien indusketekin, azagaien katalogatze eguneratu baten beharra nabarmenki areagotu da.

Lan honen *hipotesia* beraz, Goi Paleolitoan zehar ea nolabaiteko bilakera teknologikoa eta tipologikoa ikus daitekeen egiaztatzea izango da.

1.1. Testuinguru geografikoa

Ikerketa honek, gaur egungo Gipuzkoako probintziaren testuinguru geografikoa hartzen du bere gain. Hau, garrantzi handiko eremu bezala aurkeztuko da kronologia honetan izan ere, Kantauri isurialdeko dinamika krono-tipologikoa sakontzeko pieza klabea dugu, eta gainera, Iberiar Penintsularako giza talde ehiztari-biltzaileen sarbide nagusi bat suposatzen du. Hori dela eta nahi izan dugu eremu hau aukeratzea, aztarnategiak haran ezberdinetan sakabanaturik egon arren, eta, ingurune fisiko anitza eduki, ezaugarri eta eboluzio tipologikoak partekatzen dituztelako.

Kronologia zabal honetako aztarnategi multzoen barruan, *tipologia berdineko (haitzuloa) hamar aztarnategi aukeratu ditugu, azagaietan kuantitatiboki eta kualitatiboki multzo esanguratsuenak suposatzen dutenak hain zuzen* (Ikus 1. mapa).



1. Mapa. Azagaiak dituzten aztarnategien banaketa mapa.

1.2. Testuinguru kronologikoa

Goi Paleolitoan kokatzen gara, Chatelperron aldiaren hasieratik, Magdalen aldiaren amaierara arte. Breuilek lehen sistematizazioa egin zuen, Aurignac aldia Moustier aldia eta Solutre aldiaren artean kokatuz eta, lehenengo tekno-komplexu honen barne sailkapen bat gauzatu: Behe Aurignac aldia, Chatelperron puntekin, Erdi Aurignac aldia, oinalde pitzatudun azagaiekin, eta Goi Aurignac aldia, Gravette puntekin (BREUIL, 1912). Lehen sailkapen honetatik, Erdi Paleolitotik Goi Paleolitorako trantsizioa ikerketa askoren ardatza izan da, Kantauri eskualdeko baliozko multzo eskasei, datazio erradiometrikoen mugapenei eta giza fosil eta estratigrafia zabalen absentziari aurre egiten saiatu direnak (CABRERA *et al.*, 2004). Gutxi gora behera 40000 BP arte, soilik Moustier aldiari atxikiriko testuinguruak ditugu. Jarraiki eta 40000 eta 37000 BP bitartean, zenbait aztarnategietan aipaturiko trantsizioa dokumentatzen da, Aurignac aldiko kultura materialetik gertu kokatuko direnak, El Castillo esaterako (CABRERA *et al.*, 2000). Horrela, aipatu beharreko lehen fase datatua Chatelperron aldia izango litzateke, Labeko Koban IX. beheko mailan lorturiko sekuentzia data

42.300 cal (OxA-22563, OxA-22562, OxA-22561 eta OxA-22560) eta Ekaingo IXb mailako 30.600 (I-11.666) datetan oinarriturik (ALTUNA, 1984; WOOD *et al.*, 2014). Aldiaren amaiera aldiz, Magdalen aldiko kulturako lehen eraldaketak eta Azil aldiaren lehen zeinuetan aurkitzen dugu, 12000 BP-tik aurrera. Haatik, datak gainjarri egiten dira eta ondorioz konplexua bilakatzen da aldi berriaren hasiera zehatza finkatzea (FERNÁNDEZ-TRESGUERRES, 1995: 204). Hori kontuan izanik, Gipuzkoan hiru datazio esanguratsu izango ditugu: Urtiaga 10.280 ± 190 (CSIC-64), Ekain 13.350 ± 250 (CSIC-172); 9.460 ± 185 (I-9239) eta 12.750 ± 250 (CSIC-172) eta Erralla 12.310 ± 190 (I-13439) (ALTUNA, 1984; ALTUNA, 1985).

2.- METODOLOGIA

Goi Paleolitoko aztarnategietan aurkitzen ditugun ikerketa honetako pieza objektuen bilaketa bibliografikoarekin hasi gara, inbentario taulak osatzea baimendu diguna. Hasierako zerrendak eta baimen egokiak eskatuta, Iruneko material arkeologikoko Gordailura (Gipuzkoako Kultur Ondare Higiariaren Zentroa) mugitu gara, guztira hamar egun osoz. Material arkeologikoen azterketa aztarnategika gauzatu da, betik ere ikerketa prozesu bera jarraituz. Lehenik, estratigrafikoki mailen sailkapen orokor bat gauzatu dugu, lehen behaketa bat eta interesatzen zaizkigun objektuak bereiziz. Behin hori burutik, dokumentazio fotografikoa aurrera eraman da, pieza bakoitzeko aurrealde, atzealde eta bi alboetako argazkiak eginik. Jarraian, kalibre batez baliaturik, piezen neurriak dokumentatu ditugu, kasu honetan luzera, zabalera eta lodierak jasorik. Honen ostean eta adibide esanguratsuenetan, oinalde edota dekorazio zehatz batzuen marrazketak gauzatu ditugu. Era berean, binokularra erabili dugu, bereziki fabrikazio zeinu eta dekorazio motiboen behaketa zehatz batetarako.

Hauek ikertu ondoren, lanaren bigarren fasea, lorturiko datuak sailkatu eta interpretatzea izan da xedea. Prozesu hau aurrera eramateko, lehenik eta behin lehengaien arabera banandu ditugu, hots, hezurra edo oreindar adarra den identifikatuz. Horrela, gure laneko azterketa material multzoari erreferentzia egiteko “hezurrezko tresneria” izendapen tradizionala erabiliko dugu, nahiz eta, ia pieza guztiak oreindar adarrean eginak egon, “gai organikoko tresneria” terminoaren erabilpenak bestelako nahasketa bat sorrarazi dezakelako, apaindurak esaterako, gehitzen direlako. Ostean, tipometrikoki sailkatu ditugu, proportzioak mantentzeko grafikoetan Y zabalera eta X luzera emanik. Horrela, azagaiak tipologia desberdinetan antolatu ditugu, hiru irizpide nagusietan

oinarrituz: ebakidura, oinaldea eta alaka¹ eta apaindura. Guzti honek, katalogo bat sortzea ahalbidetu digu.

Azarnategi bakoitzaren materialen taulak (sigla, ebakidura, tamainak, maila eta kronologia) 1. Eranskinean aurkitzen dira, 2. Eranskinean lanean zehar landutako azagaien argazkiak agertzen diren bitartean. Aipatu behar dugu, ikerketa honetatik kanpo gelditu direla testuinguru zehaztugabetik, Lersundi kondearen indusketatik edota zabortegietatik lorturiko materialak.

3.- EMAITZAK

430 piezek osatzen dute ikertutako materiala.

Aitzbitarte III (Errenteria) (ALTUNA *et al.*, 2011; ALTUNA *et al.*, 2017)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Ait. III.

64-32 Orr. (Errenteria):

X. 589.743 Y. 4.790.777 Z. 220

Estratigrafia: I. maila (alterazio oso handia), II. maila (Gravette aldi amaiera eta Erdi Solutre aldia), III. maila (Gravette aldi amaiera eta Erdi Solutre aldia), IV. maila (Antzin Gravette aldia), Va. maila (Antzin Gravette aldia), Vb goiko maila (Antzin Gravette aldia), Vb. maila (Aurignac aldi garatua) eta VI. maila (arkeologikoki antzua).

Materialak: 23 azagaia.

Aitzbitarte IV (Errenteria) (BARANDIARÁN, 1961)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Ait. IV.

64-32 Orr. (Errenteria):

X. 589.751 Y. 4.790.780 Z. 228

¹Oinalde terminoa, piezaren oinarria edo objektuaren euskarri nagusiari egiten dio erreferentzia eta alaka

Estratigrafia: Azaleko eta katen maila, Ia. maila (Azil aldia), Ib. maila (Azil aldia – Azken Magdalen aldia), II. maila (Azken Magdalen aldia), III. maila (Erdi/Goi Magdalen aldia), IV. maila (Goi Solutre aldia) eta V. maila (Zehaztugabea: ¿Aurignac aldia?).

Materialak: 127 azagaia.

Amalda (Zestoa) (ALTUNA *et al.*, 1990)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: A.

63-40 Orr. (Zestoa):

X. 564.689 Y. 4.787.306 Z. 205

Estratigrafia: I. maila (Erromatar berantiarra), II. maila (Erromatar berantiarra), III. maila (Kalkolitoa/Antzin Brontzea), IV. maila (Goi Solutre aldia), V. maila (VII Perigord garaia) eta VI. maila (V Perigord garaia).

Materialak: 9 azagaia.

Ekain (Deba) (ALTUNA, MERINO, 1984)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Ek.

63-38 Orr. (Deba):

X. 558.893 Y. 4.787.485 Z. 90

Estratigrafia: I. maila (arkeologikoki antzua), II. maila (Azil aldi Sauveterroidea), III. maila (Azil aldia), IV. maila (Magdalen aldia?/Azil aldia?), V. maila (Magdalen aldia?/Azil aldia?), VIa. maila (Azken Magdalen aldia), VIb. maila (Goi Magdalen aldia), VII. maila (Kantaurialdeko Behe Magdalen aldia), VIII. maila (Goi Paleolitoa), IX. maila (Goi Paleolitoa), X. maila (Antzin Goi Paleolitoa), XI. maila (arkeologikoki antzua) eta XII. maila (arkeologikoki antzua).

Materialak: 18 azagaia.

Ermittia (Deba) (ARANZADI, BARANDIARÁN, 1928; BARANDIARÁN, UTRILLA, 1975)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Er.

63-20 Orr. (Mutriku):

X. 551.679 y. 4.792.066 Z. 130.

Estratigrafia: I. maila (Kalkolitoa-Brontze Aroa, Erromar eragina), II. maila (Azil aldia), III. maila (Erdi eta Goi Magdalen aldia), IV. maila (arkeologikoki antzua) eta V. maila (Solutre aldia).

Materialak: 71 azagaia.

Erralla (Zestoa) (ALTUNA, *et al.*, 1985)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: E.

Estratigrafia: I. maila (nahasia), II-III. maila (Goi/Azken Magdalen aldia), IV. maila (tresnarik gabekoa), V. maila (Kantaurialdeko Behe Magdalen aldia), VI. maila (tresnarik gabekoa) eta VII. maila (arkeologikoki antzua).

Materialak: 20 azagaia.

Labeko Koba (Arrasate) (ARRIZABALAGA, ALTUNA, 2000)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: L.K.

88-41 Orr. (Arrasate):

X. 541.538 Y. 4.767.862 Z. 235.

Estratigrafia: I-II. maila (arkeologikoki antzua), III. maila (Goi Paleolitoa), IV. maila (Aurignac aldi tipikoa), V. maila (Aurignac aldi tipikoa), VI. maila (Aurignac aldi tipikoa), VII. maila (Protoaurignac aldia), VIII. maila (arkeologikoki antzua), XI goiko maila (Aurignac aldia) eta XI azpiko maila (Chatelperron aldia).

Materialak: 8 azagaia.

Praileaitz I (Deba) (PEÑALVER *et al.*, 2017)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: P.A.

63-20 Orr. (Mutriku):

X. 551.388 Y. 4.791.984 Z. 55.

Estratigrafia:

- Ataria: I. maila (ia arkeologikoki antzua), II. maila (Azil aldia), III. maila (Goi eta Azken Magdalen aldia), IV. maila (Behe Magdalen aldia) eta V. maila (Goi Solutre aldia). Ipar-mendebaldeko galeria: II. maila (Azil aldia), IV. maila (Behe Magdalen aldia), V. maila (Goi Solutre aldia), VI. maila (zehaztu gabea) eta VII. maila (zehaztu gabea).
- Korridorea: Ic, Iia eta Iib maila (Azken Magdalen aldia – Epipaleolitoa), III. maila (Goi eta Azken Magdalen aldia), IV. maila (Behe Magdalen aldia) eta V. maila (Goi Solutre aldia).
- Lehen barruko gela: II. maila (Azil aldia), IV. maila (Behe Magdalen aldia) eta V. maila (Goi Solutre aldia).
- Bigarren barruko gela: IV. maila (Behe Magdalen aldia).

Materialak: 10 azagaia.

Urtiaga (Deba) (BARANDIARÁN, 1947, 1948)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Ur.

63-61 Orr. (Deba):

X. 555.194 Y. 4.792.484 Z. 160.

Estratigrafia: A maila (nahasia), B maila (Brontze Aroa), C maila (Azil aldia), D maila (Azken Magdalen aldia ¿Azil aldia?), E maila (Magdalen aldi ¿Erdia?), F maila (¿Lehen? Magdalen aldia), G maila (Magdalen aldia), H maila (arkeologikoki antzua), I. maila (Magdalen aldia), J maila (antzua arkeologikoki), K maila (troska), L maila (antzua arkeologikoki) eta M maila (troska).

Materialak: 142 azagaia.

Usategi (Ataun) (BARANDIARÁN, 1977)

Mota: Haitzuloa.

Sigla: Us.

114-1 Orr. (Ataun):

X. 567.516 Y. 4.760.769 Z. 460.

Estratigrafia: Azala, I. maila (arkeologikoki antzua), II. maila, III. maila (Goi Perigord aldia), IV. maila, V. maila (arkeologikoki antzua), sarrerako zundaketa; I-II-III. maila (Burdin Aroa-Erromatar Garaia).

Materialak: 2 azagaia.

Azagaia tipologia	Aztarnategiak									
	Ait.III	Ait.IV	A.	Ek.	Er.	E.	L.K.	P.A.	Ur.	Us.
Oinalde pitzatudun azagaia				1			2	1		
Azagaia isturiztarra	3									1
Azagaia losangikoa	1									
Alaka bakarreko azagaia	5	30	1	3	6	5		2	7	
Alaka bikoitzeko azagaia	3	2	1		2				15	
Punta bikoitzeko azagaia		8	1	1	8			2	18	
Oinalde urkila-formako azagaia					1					
Oinalde laburtudun azagaia					3					
Alaka lantzetadun azagaia		1							1	
Azagaia osoak edo ia bere osotasunean	5	27		5	17	4			17	
Azagaia punta		5		1	2		1		6	
Azagaia urrunaldea	3	26	5	1	20	5	3		31	1
Azagaia erdialdea	2	22	1	5	10	6	2	5	28	
Azagaia hurbilaldea	1	6		1	2				7	
Oreindar adar zorroztua edo puntadun materiala									12	
Totala	23	127	9	18	71	20	8	10	142	2

1. Taula. Azagaien tipologia sailkapena aztarnategien arabera.

4.- EZTABAIDA

Tradizionalki gai honen inguruan hitz egiten denean, nahiko konplexua bilakatu daiteke kasu honetan, azagaien eboluzio krono-tipologiko bat aurrera eramatea. Alde batetik, Erdi Paleolitoa eta Goi Paleolitoa ezberdintzeko joera nagusi bat egon da zeinetan “gutxi landutako” hezurrezko tresnak eta landutako tresnen arteko bi muturrak aurrez aurre jarri diren, dikotomia nabari bat bultzatu dutenak, eztabaida historiografiko askoren muina bilakaturik. Aldiz, errealitatea gaur egun oso bestelakoa da eta, aldagarri ezberdinak kontuan hartzen baditugu (tipologia, morfometria, lehengaia,...) benetako trantsizio orokor bat dokumentatu dezakegu, mugari teknologiko bat ezartzea zaila izan arren (ARRIZABALAGA, IRIARTE, 2010). Beste alde batetik, fosil gidarietan oinarritzea eta bereziki etengabe paralelo kronolo-tipologikoen bilaketek, aipaturiko arazoa areagotu dute.

Egia da, Gizaki Anatomikoki Modernoen (GAM) taldeen etorrerarekin, berrikuntza tekniko eta garai hartara arte ez ohikoak ziren lehengaien erabilerak emango direla, hezurra bigarren plano batean geldituz eta bereziki oreindarren adarren erabilera dokumentatuz, baina, honek ez du esplizituki esan nahi tresna berrien ekintzaile bakarrak izan zirenik, askotan iradoki izan ohi den bezala, izan ere, gaur egun giza espeziea eta tresneria konkretu baten lotura zuzena egiteko joerak kolokan jarri dira, Saint-Césaire eta Grotte du Renne Chatelperron aldiari loturiko mailetan berreskuratutako Neandertal giza fosilek aditzera eman duten bezala (LÉVÊQUE, VANDERMEERSCH, 1980; FREEMAN, 2005; HUBLIN *et al.*, 2012). Nahiz eta Kantauri isurialderako gaur egun oraindik ez eduki Chatelperron aldiari loturiko giza fosilik, egia da Aurignac aldi zaharreko industriak denboran adinkideak direla Chatelperron aldiekiko, hots, Kantauri isurialdean Neandertalak eta Gizaki Anatomikoki Modernoak elkarrekin bizi izan zirela hainbat milurtekotan zehar, eta ondorioz, azken urteetako eztabaida historiografikoan, Neandertalen gaitasun kognitiboen berrinterpretazio baten beharra nabarmenki areagotu dela (D’ERRICO *et al.*, 1998; ANDRÉS-HERRERO, 2009).

4.1. Chatelperron aldia


Horrela eta ikertutako material multzoari jarraiki, azagaiek Erdi Paleolitoa eta Goi Paleolitoko multzoen banaketa lerro nagusia markatuko dute. Gaur egun Gipuzkoako azagaiaren lehen presentzia, Chatelperron aldian kokatu behar dugu, zehazki Labeko

Kobako IX. mailan aurkitutako azagaia baten urrunaldea, edonola ere, ezin dugu utzi azpimarratu gabe, objektu pieza honen presentzia Moustier edota trantsizio aldiko testuinguruetako Kantauri isurialdeko zenbait aztarnategietan dokumentatzen dela, El Conde edo El Castillo esaterako (MUJIKA, 2000; ARBIZU *et al.*, 2005; MORÁN, TEJERO, 2006). Tekno-konplexu honen ezagutza gaur egun oraindik erronka bat suposatzen du, berari egokitzen zaizkion mailak bereziki urriak izango direlako, guztiak Kantauri isurialdean kokatzen direlarik: A Valiña, Cueva Morín, La Güelga, El Pendo, Ekain eta Labeko Koba (VAQUERO, 2006: 113). Gainera, gehienek definizio arazoak aurkezten dute eredu frantsesarekiko – horietako gehienak eztabaidatsuak izanik – soilik Cueva Morín eta Labeko Koba edukirik *in situ* Chatelperron aldiari loturiko mailak (ARRIZABALAGA, ALTUNA, 2000; MAÍLLO, 2003; MAÍLLO, 2007).

4.2. Aurignac aldia


Aurignac aldia hezurrezko tresneriako fosil gidarietan oinarrituriko azpi-zatiketa kronologikoaren ideia bultzatuko duen lehenengo horizonte arkeologiko eta kulturala dugu. Horrela, Gipuzkoako aztarnategietan kultura honen fase ezberdinak dokumentatzen dira: Protoaurignac aldia (edo Aurignac arkaikoa), Aurignac aldi zaharra (edo tipikoa) eta Aurignac aldi eboluzionatua (RUIZ IDARRAGA, 1990).

Kronologia honetako material multzoari dagokionez, lau ezaugarri orokor azpimarratu ditzakegu. Lehenik, kopurua zertxobait areagotzen da nahiz eta hurrengo aldiekiko oraindik multzo murrizta suposatzen duen. Bigarrenik, eta morfometriaren ikuspuntutik, talde nahiko heterogeneo baten aurrean egongo gara, Protoaurignac aldiko azagaiak dimentsio txikiena eta Aurignac aldi zaharrean tamaina handitzeko joera ez oso garbi bat antzematen dugularik: piezen luzera eta zabaleraren batezbestekoa 37,55 mm eta 10,11 mm da hurrenez hurren (Ikus 1. grafikoa).



1. Grafikoa. Labeko Kobako Aurignac aldiko azagaien tipometria.

Hirugarrenik, eta ebakiduretan zentratuz, azagaia lauak izango dira nagusi (5: %71,42) era garbi batean (Ikus 2. grafikoa).



2. Grafikoa. Labeko Kobako Aurignac aldiko azagaien ebakiduren banaketa.

Laugarrenik, aldi honetan azagaia tipologia espezifiko bat bereizi behar dugu, oinalde pitzatudun azagaia alegia, tradizionalki garai hau ezaugarrituko duen fosil gidaria bezala izendatua izan dena. Hala ere, fosil gidariaren kontzeptua gai honetan nabarmenki indargabetzen da, gutxienez azagaia mota honen kasurako, alde batetik ezin dugulako guztiz berrestu “Aurignac zaharreko oinalde pitzatudun azagaia” aldiaren aurretik ez denik mota honetako morfologiako azagaiarik egon eta beste alde batetik, eta ondoren aztertuko dugun bezala, Gipuzkoako kasurako behintzat, Magdalen aldian ere tipologia

honetako azagaiak dokumentatzen direlako (BALDEÓN, 1984; ARRIZABALAGA, 2005; PEÑALVER, MUJICA, 2005).

Marko kontzeptual horretan, Protoaurignac aldian, soilik Labeko Kobako VII. mailan identifikatua, azagaia lauak izango ditugu nagusi.

Aurignac aldi zaharrari dagokionez, jada aipatu dugun oinalde pitzatudun azagaia izango dugu. Hauek, izenak berak dioen moduan, oinarriko alakaren ordeztu, ebaki bat dute zurezko hagatxo txertatu ahal izateko eta diseinu morfometrikoari jarraiki, bi mota bereizten dira: forma eliptikodun puntak eta bikonbexu formako puntak. Lehenengoaren kasuan, ebakidura eliptikodunen luzera ertain eta luzekoak dira eta bere ertzak zuzenak izan ohi dira, konbergenteak mutur urrunalderantz. Oinalde pitzatudun azagaia bikonbexuen kasuan aldiz, orokorrean tamainaz txikiagoak dira eta askotan oinaldeko muturretik edota erdiko ebakiduratik trunkadura bat erakusten dute, fabrikazio haustura alegia. Aurignac aldiko punta hauen dualismoaren interpretazioa azaltzea zaila da, Iberiar Penintsulako erregistro material urriarengatik: *“It may simply be the result of a lack of morphometric standardization of this object, regional traditions and/or cultural variety, or even different use modalities”* (TEJERO, 2016: 60).

Horrekin batera, eta XX. mende hasieratik, azagaia mota honen fabrikazioaren inguruko eztabaida dugu, ikerlarien artean bi hipotesi gailenduz. Alde batetik, L. Henri-Martinek, ondoren Knecht-engatik berretsia, proposatu zuen piezaren oinarriko ebakia perkusio ez zuzenagatik sortua izan zela, hots, zatiketa bidezko haustura bat, piezaren hurbilaldeko muturrean kuña bat erabiliz zeharkako perkusiogatik (KNECHT, 1997). Beste alde batetik, Peyrony-k kronologia honetako mailetan aurkitutako eztenekin lotu zuen oinalde pitzatudun azagaien fabrikazioa (PEYRONY, 1935). Autorearentzat, adar landu gabe zati bati bere bi aurpegietan zeharkako ebakidura eginik – bere lodiera osoaren laurden edo herena sakonduz –, eta ondoren joan-etorriko flexioa eginik, aipaturiko eztena aterako litzateke, oinalde pitzatudun azagaia lortuz. Haatik, interpretazio hauek ez dira bakarrak, eta bereziki azken urteetan eta arkeologia esperimentalean oinarriturik, bi teorien konbinaketa aldarrikatu da: adarraren propietate fisiko eta mekanikoak kontuan izanik, zuzeneko ebakidura mugatzen duena, ebakidura eta flexio prozedurek banaketaren hastapena ahalbidetuko du, adarren zuntzezko egitura aprobetxatuz. Horrela, behin banaketa gauzaturik, ebakiduraren bitartez luzatu daiteke oinaldearen banaketa (TARTAR, WHITE, 2013: 2741). Gainera, aztarnategietan aurkitutako oinalde

pitzatudun azagaia forma ezberdinek, agerian uzten dute, morfologia honetako azagaiaren ekoizpen konplexutasunaz gain, Aurignac aldiko heterogeneotasuna.

Ondorioz, morfologia espezifiko honetako bi adibide esanguratsu izango ditugu Labeko Kobako V. eta VI. mailetan. Oinalde pitzatudun azagaia, oreindar adarrean egina, beste lehengaien eskuratzearekin alderatuz – hezurra edo harria – urriagoa, eta, ikusi dugun bezala inbertsio tekniko konplexuagoa izanik, ehiza tresna hauen konpontze sistematikoa dokumentatzen da, ohikoena azagaiaren urrunaldearen zatiaren berdefinizioa izanik piezaren lodierari eragin gabe, Europako aztarnategietan aurkitutako piezen neurrien dibertsifikazioak ondo iradokitzen duten bezala (TEJERO, 2016: 60). Azken hauen morfometria alderatuz, dokumentatu da Aurignac aldi zaharreko mota honetako azagaiak, printzipioz konpondu gabekoak, 110 mm luzera inguru izango zituztela eta hauek behin eta berriz erreparatuak izango zirela 50 mm iritsi arte, erabilgarriak izateri utzi arte alegia (TEJERO, 2014: 81-82). Datu horiek kontuan izanik, ziurrenik Labeko Kobako V. mailan aurkitutako mota honetako azagaia konponketa bat baino gehiagoren ondorio izango dela, gaur egungo dimentsiotara iritsi arte: 68 mm luzera, 15,8 mm zabalera eta 6,8 mm lodiera (Ikus 2.1. irudia).

Azagaia tipologia horretaz gain, ikerketa honetan erabili dugun klasifikazioko zenbait adibide izango ditugu: azagaia punta (1: %14,28), azagaia urrunaldea (2: %28,57) eta azagaia erdialdea (2: %28,57) identifikatzen dira.


Hirugarren eta azken aldian zentratzen bagara, hots, Aurignac aldi eboluzionatua, okerren ezagutzen den maila izango da, askotan identifikazioak kronologian oinarriturik abiatu direlako eta ez horrenbeste, ongi identifikatutako multzoekiko erlazioetatik (ARRIZABALAGA, IRIARTE, 2011: 175). Ondorioz, Gipuzkoan Aitzbitarte III-ko Vb. maila soilik lotuko da azpi tekno-komplexu honekin non ez diren aurreko aldian ezaugarritutako azagaiarik aurkituko, eta ezta Aurignac aldi eboluzionatuarekin loturiko azagaia losangikoak (RÍOS *et al.*, 2011: 145).

4.3. Gravette aldia

Gravette aldiari dagokionez, fenomeno kultural honek Europa mailan nolabaiteko batasuna eskaini arren, eskema ebolutibo partikularrak dituzten eskualdekako fazies oso karakterizatuak aurkezten ditu (LEROI-GOURHAN, 2002: 337).


Aldi honetan, aurreko aldiarekiko tipologiaren dibertsifikazio bat izango dugu, multzo material horretatik Europa mendebaldean kronologia honetan ezaugarrituko den tresna dokumentaturik: azagaia isturiztarra. Gainera kasu honetan, garrantzi bikoitza izango dute, lehenik, Aurignac aldiko oinalde pitzatudun azagaiak ez bezala, soilik Gravette aldiko maila estratigrafikoetan identifikatuko dira, tekno-komplexu honen fosil gidaria bilakatuz eta bigarrenik, gure ikerketa material multzotik, gainazalean dekorazio motiboko ebakidurak dituzten lehen piezak ditugu. Honekin batera eta hurrengo aldietan nagusituko diren azagaia tipologiko ezberdinen lehen presentzia emango da, multzo eskasa izango dena baina hurrengo aldien nondik norakoak aurreikusten dutenak: alaka bakarreko zein bikoitzeko azagaia, punta bikoitzeko azagaia eta azagaia losangikoa agertzen dira, jarraian modu indibidualki aztertuko ditugunak.

Aldi honetan, piezen luzera eta zabalaren batezbestekoa 52,61 mm eta 12,93 mm da hurrenez hurren. Orobat, joera nagusi bat ikusi dezakegu non azagaien talde erdia baino gehiago 15 mm-tik 50 mm-tara bitarteko luzeran eta 5 mm eta 16 mm zabalera bitartean kokatuko diren (12: %63,15). Ondoren, 50 mm-tik 100 mm-tarako luzera bitartean, talde txikiago bat dugu (6: %31,57), eta azkenik 100mm-tik gora adibideak urriak dira (1: %5,26) (Ikus 3. grafikoa).



3. Grafikoa. Gravette aldiko azagaien tipometria.

Ebakiduren kasuan, konbexua edo lau-konbexua izango da nagusi (7: %36,84), jarraian kopuru berean azpi-lau angeluarra (5: %26,31) eta biribila edo azpi-biribila (5: %26,31), eta azkenik laua eta azpi-triangeluarra (2: %10,52) (Ikus 4. grafikoa).



4. Grafikoa. Gravette aldiko azagaien ebakiduren banaketa.

Ikertutako materialari erreparatuz, eta esan dugun bezala, tipologia ezberdinen agerpena emango da. Horrela, eta lehenik eta behin, azagaia isturiztarra dugu. Hauek, bereziki Dordoina eta Erdialdeko eta Mendebaldeko Pirinioetan agerturik, Isturitzeko aztarnategia izanik nagusia, hortik eratorriz bere izendapena, Iberiar Penintsulan soilik Kantauri eskualdean kopuru xumeago batean aurkituko ditugu (SAN JUAN-FOUCHER, VERCOUTÈRE, 2003). Mota honetako azagaien banaketa Kantauri eskualdean, bat egiten du Noailles zulakaitzetan aberatsa diren Gravette aldiko mailekin, Kantabriako ekialdeko muturreko aztarnategiak Mendebaldeko Pirinioetakoekin lotura ahalbidetuz eta Kantauri eremu zentral eta mendebaldetik bereiziz (RÍOS, GARATE, 2014: 234). Objektu hauen funtzionalitatea lan ezberdinetan deskribatu dira (Féaux, 1878) (Thomson, 1939) (Ragout, 1940) (R. de Saint-Périer, 1949), baina hala ere, gaur egun oraindik ez da ebatzi, kontserbatutako aleen gehiengoko zatikatutako izaera dela eta – eztabaida mutur ildaskatua tresnaren hurbilaldeko edo urrunaldeko partea den zehazteko –, ehiza tresna zein tresna domestiko bezala interpretatuak izanik (SAN JUAN-FOUCHER, 2012: 442; GOUTAS, 2016: 99).

Gipuzkoan, bi azagaia isturiztar dokumentatzen dira Aitzbitarte III-ko barrunbean² eta Usategin, nahiz eta beste hirugarren eta laugarren baten hurbilaldea dokumentatu diren aipaturiko lehenengo aztarnategian (MUJIKA, 1983; ALTUNA *et al.*, 2017). Piezen

²Lan hau amaitzeaz zegoela, Aitzbitarte III-ko barrunbeko indusketaren emaitzak argitaratu dira. Hala ere, egileek aitortzen duten bezala, objektu gehienak testuingurutik at aurkitzen dira, hau da, kokapen deribatuan, horregatik haien izaera arkeologikoari-kulturalari dagokionez, galdera ezberdinak planteatzen dituzte, zuhurtasun handiarekin hartzeak direnak. Hori kontuan harturik, eta aztarnategiaren barnealdeko azagaien lehen sailkapena jarraiturik (ALTUNA, 2004), lan honetan Gravette aldian klasifikatu ditugu, nahiz eta ezin dugun guztiz trantsizio zein Solutre aldiko mailen lotura deuseztatu.

morfometria erreparatuz (Ikus 2. taula), biek mota honetako tresnen ezaugarriak aurkezten dute, nahiz eta aldagarritasun bat erakutsi: alde batetik, azagaia sendoa (Usategi), triangeluar formakoa eta ebakidura lodikoa eta beste alde batetik, azagaia arina (Aitzbitarte III), fusiformea eta ebakidura bikonbexukoa (RÍOS, GARATE, 2014: 242).

Sigla	Lehengaia	Ebakidura	Morfologia	Dimentsioak (mm)			Ebakidurak
				Luzera	Zabalera	Lodiera	
Ait.III.5	Oreindar adarra	Bikonbexua	Fusiformea	142	24,30	10,30	Goialdean eta ertzetan
Us.13D.30	Oreindar adarra	Azpi-triangeluarra	Triangeluarra	85,06	28,09	19,02	Goialdean eta ezkerreko alboan

2. Taula. Aitzbitarte III eta Usategiko azagaia isturiztarrak.

Aitzbitarte III-ko piezari dagokionez, 6,3 cm hurbilaldeko muturreraino, piezaren ertzak paraleloak dira puntu horretatik forma asimetrikoa hasirik eta, erdiko muturrean, eskuineko aldeak alaka hobeago definiturik du, ezkerreko aldea borobilagoa den bitartean (Ikus 2.2. irudia). Hurbilaldeko muturrean, alaka lautu egiten da; goialdea eskuinera eta beheko aldea ezkererantz (RÍOS, GARATE, 2014: 239). Ebakiduren kasuan, goialdean eta ertzetan identifikatzen dira, ia hurbilaldeko muturrean hasten direnak, azagaiaren erdialdeko zatian, ertzak paraleloak direnean, agertzeari uzten dioten heinean. Goialdean ebakidurak zeharkakoak dira piezaren zabalera guztia okupatuz, horietako batzuetan superposizioa identifikatuz (Ikus 2.2a, 2.2b eta 2.2c irudiak). Ebakidura hauek, hurbilaldeko muturrean konbexuak dira, lerro mehez osatuak, eskuinetik ezkerreara eginak. Honekin batera, badaude zenbait lerro mehe eta ez sakonak. Eskuineko alboan, ebakidura lerroak anizkunak dira: horietako batzuk txikiak eta laburrak piezaren goialdearen elkargunean, beste batzuk luzeagoak ertzaren lodiera betetzen dutenak eta azkenik, ebakidura txikiak atzeko aurpegiko elkargunean. Ezkerreko alboan aldiz, ebakidurak aniztasun txikiagoa dute; lerro motzak agerturik bitarte erregularrean banandurik (RÍOS, GARATE, 2014: 242). Gainera, piezak bi haustura aurkezten ditu: bata urrunaldeko eremuan eta bestea hurbilaldeko eremuan.

Usategiko azagaia isturiztarraren kasuan, ertzak bat egiten dute piezaren luzera ardatzarekiko (Ikus 2.3. irudia). Ebakidurak, goialdean eta ezkerreko alboetan aurkezturik, lehenengoaren kasuan irregularki bananduak daude eta lerro forma desberdinak ematen dira: ezker zonaldekoak ia ez dira antzematen piezaren goialdearen

alterazioarengatik, erdialdeko eremuan zeharkako lerroak eta eskumako eremuan arinki zeharrak diren heinean (Ikus 2.3a eta 2.3b irudiak). Azagaiaren ezkerreko alboan, zeharkako ebakidura lerro sakonak aurkezten ditu, haien artean bitarte banaketa erregularrik gabe, batzuetan gainjarrit. Azkenik, eskuineko alboan, bi koska ditu piezaren goialdeko eskumako eremuko ebakidurak murriztuz. Gainera, aurreko pieza bezala, urrunaldeko muturrean haustura bat aurkezten du, arinki leundua.

Azterturiko bi pieza hauekin batera, eta esan dugun bezala, Aitzbitarte III-ko barrunbeto eremuan, tipologia honetako beste bi piezen hurbilaldeak dokumentatzen dira eta, aurreko piezak bezala, tankera antzeko ildaskak dokumentatzen zaizkie (Ikus 2.4. irudia).

Gravette aldian aurkituko dugun bigarren motatako tipologia azagaia losangikoa izango da, garrantzi handikoa, ikerketa honetako material multzo guztietan adibide bakarra dugulako (Ikus 2.5. irudia). Orokorrean Aurignac aldi garatuan dokumentatzen diren arren, El Oterokoak esaterako, Gipuzkoako gure multzoaren kasurako Gravette aldiaren bereizgarri dugu (GONZÁLEZ-ECHEGARAY *et al.*, 1966; ÁLVAREZ-ALONSO, 2014). Hezurrezko diafisi batean egina, oso azagaia karakteristikoa dugu bere urrunaldeko edo puntaren morfologiarengatik, izan ere, erdialdetik puntara bitarteko eremuan, marrusketa bidez piezaren aurrealdea eta atzealdea modu erregular batean higatu dira, piezak oso punta zorrotza lorturik: hurbilaldeko 14 mm zabaleratik, puntaren 3 mm-etara pasatuz. Halaber, ebakidura gorputzean laua izatetik, puntan biribila izatera pasatzen da (RÍOS *et al.*, 2011).

Hirugarrenik, nahiz eta Solutre aldiko multzoan nagusituko diren, jada Gipuzkoako Gravette aldian alaka bakarreko zein alaka bikoitzeko azagaien lehen adibideak ditugu, horietako bik hezurra lehengai bezala erabiliz. Izenak ondo dioen bezala, azagaiaren oinaldeari egiten dio erreferentzia, ia kasu gehienetan ildaska ezberdinak deskribatuz alakaren gainazalean – buruxka-itxurako apaindura tankerakoak –, bereziki alaka bikoitzeko azagaien ikusgarriak direnak, pieza heldulekuari hobeto finkatzen laguntzeko (Ikus 2.6. irudia). Ondorioz eta alde batetik, hiru alaka bakarreko azagaia identifikatzen dira tekno-konplexu honi lotutako maila estratigrafikoan, lau-konbexua izanik ebakidura nagusiena. Gainera, hausturen deskribapena izango da multzo eskas hau osatuko duten piezen ezaugarri komuna. Beste alde batetik, alaka bikoitzeko azagaiaren

adibide bakarra izango dugu, aipatu dugun bezala, bere lau aurpegieta ildaska ezberdinak identifikatzen zaizkionak motibo dekorazio bat osatuz.

Gravette aldiko laugarren tipologia baten adibidea aipatu behar dugu, hain zuzen ere, punta bikoitzeko azagaia zeinak urrunaldea eta hurbilaldeko eremuak homogeneoak izango dituen (Ikus 2.7. irudia).


Azkenik, Gravette aldiko material multzoarekin amaitzeko, ikerketa honetan azagaia ia bere osotasunean edota azagaien zati nagusi bezala klasifikatu dugun artean, honako banaketa izango dute: azagaia ia bere osotasunean (3: %15,78), azagaia urrunaldea (3: %15,78), azagaia erdialdea (1: %5,26) eta azagaia hurbilaldea (2: %10,52). Kopuru hauek nahiko baxuak dira hurrengo bi aldiekin alderatuz gero.

4.4. Solutre aldia

Solutre aldiari oinarritzen bagara, Goi Paleolito aurreratua bezala ere izendatua, inflexio puntu bat suposatuko du hezurrezko tresneriaren ekoizpenean, izan ere, Pleistozeno garaian Kantauri isurialdea populatu zuten ehiztari-biltzaile taldeen gorengo unea izango da eta bizitza forma ezberdinen kontsolidazioa emango da, honek aldi honetan zein Magdalen aldiari, Paleolito osoan dokumentatzen den ongizate puntu gorena eta garapen teknologikoki handienetara iristea ahalbidetuko du (MONTES BARQUÍN, RASINES, 2002).


Hori dela eta, aurreko garaietan ikusi ditugun tipologiako lehen aleen garapen aberatsa emango da, horien artean aipagarrienak alaka bakarreko zein bikoitzeko azagaiak edota bi puntadun azagaiak, hots, hezurrezko tresneriaren ekoizpen dinamika berri batean murgilduko gara.

Gipuzkoako Solutre aldiko azagaien distribuzioari erreparatuz (Ikus 5. grafikoa), piezen luzera eta zabalaren batezbestekoa 57,52 mm eta 9 mm da hurrenez hurren. Horrela, bi talde nabari bereizi ditzakegu kopuru berdinean. Alde batetik, azagaia taldearen ia erdia (23: %46,93), 50 mm-tik beherako luzera eta 3,70 – 12 mm-eko zabalera egongo da. Beste alde batetik, beste taldea (23: %46), 50 mm-tik 100 mm-rako luzera bitartean kokatuko da. Multzo honetako kopuru oso handi bat (41: %83,67), 5-14 mm zabalera bitartean egongo da. Azkenik, kopuru askoz txikiago batean (3: %6,12), 100 mm-tik gorako luzera duten piezak ditugu.



5. Grafikoa: Solutre aldiko azagaien tipometria.

Ebakiduren kasuan, biribila eta azpi-zirkularra gailenduko da (24: %48,97) kronologia honen hezur tresneriaren konbentzio nagusia izanik (Ikus 6. grafikoa). Jarraian, ebakidura laua dugu (14: %28,57) kopuru nahiko esanguratsuan. Bi hauetatik nahiko urrun, ebakidura karratua edo azpi-lau angeluarra izango dugu (10: %20,40), eta azkenik ebakidura konbexua egonik (1: %2,04).



6. Grafikoa: Solutre aldiko azagaien ebakiduren banaketa.

Ikerkuntza honetatik ateratako emaitzei jarraiki, alde batetik alaka bakarreko azagaiak izango ditugu. Kasu honetan, eta Gravette aldian ez bezala, kopurua nabarmenki handitzen da, gutxienez hamar adibide identifikatuz. Aurreko aldiko haustura maila, eta ondorioz, batezbesteko luzera txikiaren aurrean, Solutre aldiko alaka bakarreko azagaiak osorik edota ia bere osotasunean aurkitzen ditugu, multzo honen batezbesteko luzera 70,92 mm izatera iritsiz. Alaka bakarreko azagaia hauetan gailenduko den ebakidura biribila edo azpi-biribla izango da (6: %60) eta oso kopuru handi baten alakan ildaska ezberdinak antzematen dira (7: %77,77) (Ikus 2.8. irudia).

Alaka bikoitzeko azagaia tipologiaren kasuan, aurreko garaiko joera mantenduko da eta, oraindik oso adibide gutxi identifikatzen dira Gipuzkoako Solutre aldirako, ikerketa multzo osotik soilik bakarra deskribatuz (Ikus 2.8. irudia).


Punta bikoitzeko azagaien kasuan, kopurua ere areagotu egiten da garai honetan, zehazki bost adibidetara. Multzo honen ezaugarri nagusienak piezen batezbesteko luzera handia (115,96 mm), ebakidura biribila (3: %60) eta ildaska zehar presentzia izango dira (Ikus 2.9. irudia).

Solutre aldiko material multzoarekin amaitzeko, ikerketa honetan azagaia ia bere osotasunean edota azagaien zati nagusi bezala klasifikatu dugunen artean, honako banaketa izango dute: azagaia ia bere osotasunean (8: %16,32), azagaia urrunaldea (9: %18,36), azagaia erdialdea (12: %24,48) eta azagaia hurbilaldea (4: %8,16).

4.5. Magdalen aldia


Goi Paleolitoko azken aldiari ekinez, Magdalen aldia, aztertu ditugun ikerketa materialen multzo erdia baino gehiago suposatuko du (271: %63,02). Lan honetan zehar aipatu dugun teknologiaren gorengo unea izango da, alde batetik, azagaien dibertsifikazio tipologikoa muturrera eramango delako eta beste alde batetik, dekorazio motiboen erabilerak orain arte ezagutu duen aberastasun handiena jasotzen duelako. Hori dela eta, Paleolitoko aldi guztietatik, erabilgarri dugun informazio arkeologikoko bolumen eta kalitatea handiena duen fasean sartzen gara, bere presentzia gutxienez sei aztarnategietako maila estratigrafikoetan identifikatuz, kultura honen barne sailkapen bat egonik: Behe Magdalen aldia, Erdi Magdalen aldia eta Goi eta Azken Magdalen aldiak. (MUJIKA, 1983; BALDEÓN, 1984; BALDEÓN, 1985; ARRIZABALAGA, IRIARTE, 2011; MUJIKA, 2017).

Behe Magdalen aldiari dagokionez, Rascaño aztarnategiarekin batera, Urtiagako F mailan lorturiko datazioak markatuko du kultura honen hasiera 17.050 ± 140 BP (GrN-5817) (UTRILLA, 1981; ÁLVAREZ-ALONSO, 2007). Aldi honetako azagaien distribuzioari erreparatuz (Ikus 7. grafikoa), piezen luzera eta zabalera batezbestekoa 64,38 mm eta 8,15 mm da hurrenez hurren. Kasu honetan ere, talde nabari bat behatu dezakegu non multzoaren ia erdia (30: %49,18) 60 mm eta 115 mm luzeran bitartean kokatuko den. Jarraian, beste talde garrantzitsu bat dugu 10 mm eta 50 mm luzera tartean (25: 40,98) eta azkenik, 115 mm-ko luzerak izango dituzten piezak urriak dira (4: %6,55).



7. Grafikoa: Behe Magdalen aldiko azagaien tipometria.

Ebakiduren kasuan, bi gailenduko dira era argi batean: biribila edo azpi-biribila (28: %45,90) eta karratua edo azpi-lau angeluarra (24: %39,34). Ondoren, hirugarren ebakidura kopuru nagusi bezala, baina askoz kopuru txikiago batean, ebakidura laua dugu (6: %9,83). Azkenik, oso kasu gutxietan identifikatzen diren bikonbexua (2: %3,27) eta triangeluarra (1: %1,63) ditugu (Ikus 8. grafikoa).



8. Grafikoa: Behe Magdalen aldiko azagaien ebakiduren banaketa.

Tipologiaren ikuspuntutik, oso esanguratsua dugu aldi hau, izan ere, aurreko aldietan nahiko modu isolatuan agertuz joan diren, eta ondoren Solutre aldiaren indartu diren, azagaia moten salto kualitatibo baten aurrean egongo gara.

Lehenik eta behin, eta Aurignac aldi zaharretik dokumentatzen ez diren bi oinalde pitzatudun azagaien presentzia azpimarratu behar dugu gure esparru geografikorako, Ekain eta Praileaitz I-eko aztarnategietan. Kronologia honetan berreskuratutako tipologia berdineko beste paralelo anitz dokumentatzen dira Kantauri isurialderako, Balmori (CORCHÓN, 1986), El Castillo (UTRILLA, 1981; CABRERA, 1984) edota ziurrenik Santimamiñe (MUJICA, 1992). Tipologia honen berragertzearen arrazoiak baloratzea oso konplexua da, berriro ere, ale kopuru urriengatik, baina baita morfologia honetako azagaien haustura mailarengatik (PEÑALVER, MUJICA, 2005).

Piezen morfometria erreparatuz (Ikus 3. taula), biek mota honetako azagaia ezaugarritu duten konbentzioa eduki arren, jada ikusi dugun Aurignac aldi zaharreko oinalde pitzatudun azagaiarekin nabarmenki ezberdintzen dira. Alde batetik, Aurignac aldikoaren kasuan, piezaren zabalera Magdalen aldikoaren bikoitza da (15,8 mm), eta hurbilaldea eta bereziki urrunaldea eta erdialdearen arteko tamaina kontrastea oso esanguratsua dugu, erronbo arinki baten itxura hartuz. Aitzitik, Behe Magdalen aldiko mailan berreskuratutako piezen adibideetan, piezaren atalak proportzionalagoak dira, hots, homogeenagoak. Horretaz aparte, pitzaduraren dimentsioa Aurignac aldi zaharrekoan nahiko handiagoa den heinean, Magdalen aldiko bi kasuetan hurbilaldeko zati txikiago bat okupatzen du. Edonola ere, Magdalen aldiko bi piezen oinaldeak

